

PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS 2021



Getxo
bizi ezazu

PARTE-HARTZE IZAERAKO

AURREKONTUAK EMAITZEN TXOSTENA II. FASEA

0. PRESENTACIÓN AURKEZPENA.

BOSTGARREN urtez jarraian, **GETXOko Udalak** parte-hartze izaerako aurrekontuen prozesu bat jarri du martxan. Oraingo honetan, 2021. Urteko aurrekontuei buruzkoa izan da prozesua.

LEHENENGO FASEA **2020ko urtarrilaren 24tik otsailaren 6ra bitartean** egin zen, eta udalerriko bizilagunen ekarpenak jasotzea izan zen helburua. Zentzu horretan, prozesuan

parte hartu zuten getxotarren iritziak balio izan zuen edukiz betetzeko parte-hartze prozesuaren BIGARREN FASE honetako proiektuak. **2020ko Uztailaren 16tik 26ra** egin da fase hori.

Herritarren parte-hartzetik hainbat aukera eta abantaila eratortzen dira, eta horiek, modernoa, eraginkorra, gardena eta, batez ere, herritarrekiko gertukoa den tokiko erakundea finkatzen laguntzen dute. Prozesuak honako helburu hauek ditu:

- Herritarrak udal gobernuarekin lotzea, erakundearen lana eta kudeaketa ezagutaraziz.
- Gure bizilagunen lehentasunak eta beharrak ezagutzea eta denen eskaera errealekin bat datozen irtenbideak eskaintzea.
- Getxoko bizilagunen protagonismo aktiboa sustatzea, herritarrak ez daitezten izan lurraldeko bizitza publikoaren ikusle soilak.
- Herritar ahaldunduekin, kuadeaketa publikoan arrazoiduna, eraginkorra eta gardena den udala indartzea.
- Hausnarketa aktiborako, eztabaidarako eta elkartasunerako bideak irekitzea, herritaren eta tokiko erakundearen arteko elkarrizketa eta komunikazioa hobetzen lagunduko dutenak.
- Herritar, ordezkari politiko eta teknikariek egiaztatutako aurrekontu irekiak onartzea.

Hainbat motatako **1093 ekarpen** Bildu zituen lehenengo fasetik, bigarren fase honetan herritarrek balioztatu eta lehenetsi beharreko hainbat proiektu atera ziren.

Honako hauek dira esleitutako proiektu eta kostuak:

PROPOSAMENAREN IZENA	GASTUAREN ZENBATEKOA
1. Adinekoen nahi gabeko bakardadearen kontrako baliabideen katalogoa	22.000€
2. Txakurrentzako aisiarako eremuak	12.000€
3. Igogailua Andrés Isasi Musika Eskolan	150.000€
4. Bidegorri sarea zabaltzea	300.000€
5. Santa Anako haur parkea berritzea	48.000€
6. Tokiko merkataritzan kontsumoa sentsibilizatzeko, laguntzeko eta sustatzeko kanpaina	60.000€
7. Bizikleta publiko elektrikoaren alokairua eta aparkaleku segurua, bizikleta eta NMP pribatuak kargatzeko guneekin	400.000€
8. Zaharberritzeak Villamonteko Kultur Aretoan	155.200€

Parte hartzeko beharrezkoa izan zen aurkeztutako proiektu guztiei **1etik 8ra arteko puntuazioa** ematea.

Getxoko Udalak **1.000.000€** bideratu ditu prozesu horretara; beraz, puntuazio gehien dituzten proiektuak gauzatuko dira, proiektuen batuketa orokorra zenbateko hori lortu arte.

Jarrain, bigarren fasean herritarrek parte hartzeko jarritako bideak zehazten dira:

- a) Sareko galdetegia
- b) Kutxak Herritarren Arretarako Bulegoetan, RKEn, Villamonteko Kultur Etxean eta Faturako kiroldegan.
- c) E-maila, eskaneatutako galdetegiak gobernuirekia@getxo.eus helbidera bidaliz.
- d) Herritarern ekarpenak jasotzea erraztuko duten parte hartzeko postontziak. Bertan, aldez aurretik postontzietan utzi diren paperezko galdetegiak sartu beharko dira. Parte-hartzeko postontziak toki estrategikoetan kokatu dira (Algorta, Areeta eta Bidezabalgo metro-irteeren inguruan), udalerrian prozesuaren hedadura egokia eta herritarrak ekimenera sartu ahal izatea bermatzeko xedearekin.

1. PROZESUAREN AZALPENA - DESCRIPCIÓN DEL

PROCESO

Beste batzuetan egin izan den moduan, herritarrei zuzendutako aurrez aurreko parte-hartze bideak eta bide birtualak batzen dituen metodologia baten bitartez egituratu da 2021ko parte-hartze izaerako aurrekontuen prozesua.

Zehazki, udalerrian erroldatuta dagoen 16 urtetik gorako edozein persona izan du parte hartzeko aukera; bai eta elkarteek, fundazioek, sindikatuek, empresa-elkarteek, elkargo

profesionlek, zuzenbide publikoko korporazioek eta udalerrian errotuak dauden eta izaera juridikoa duten arlo ezberdinetako erakundeek.

Beste batzuetan bezala, komunikazioa publizitatea eta prozesuaren ikusgaitasun bide hauetan honeko bide hauen bidez integratu dituen sozializazioan oinarritu da:

- Prozesuaren zabalkundea. Getxoberri udal astekariaren bidez.
- Sare social instituzionalak.

PARTE-HARTZE MAILA

Bigarren fasean zehar, guztira, **774 galdetegi** jaso dira beteta. Horietatik **115** bazterti egin dira, hainbat arrazoi tarteko. Bahetze horren ostean, **659 galdetegi baliozkoen** datuak aztertu dira, honela banatuta:

	BALIOZKOAK GUZTIRA
POSTA ELEKTRONIKOA	26
WEBGUNEA	423
KUTXAK	62
POSTONTZIAK	148
GUZTIRA	659
ONLINE (POSTA ELEKTRONIKOA + WEBGUNEA)	449
PRESENTZIALA (KUTXAK + POSTONTZIAK)	210

2 elkarte parte hartu dute.

Adinen araberako profilari begiratu gero:

	BALIOZKOAK GUZTIRA
66 URTE BAINO NAGUSIAGOAK	121
46 ETA 65 URTE BITARTEKOAK	278
30 ETA 45 URTE BITARTEKOAK	196
16 ETA 29 URTE BITARTEKOAK	62

EMAITZAK - RESULTADOS.

2.1 Parte-hartzearen emaitzak

Jarraian, 2021eko udal aurrekontuetan herritarrek parte hartzeko bigarren fase honetan aurkeztutako zortzi proiektuen lehenespenerai dagozkion datuak eta emaitzak aurkeztuko dira.

EMAITZEN ORDENA	PROIEKTUAK	JASOTAKO PUNTUAK
1	Adinekoen nahi gabeko bakardadearen kontrako baliabideen katalogoa. 22.000 euro	3674
2	Bidegorri sarea zabaltzea. 300.000 euro	3504
3	Tokiko merkataritzan kontsumoa sentsibilizatzeko, laguntzeko eta sustatzeko kanpaina. 60.000 euro	3335
4	Zaharberritzeak Villamonteko Kultur Aretoan. 155.200 euro	2730
5	Santa Anako haur parkea berritza. 48.000 euro	2711
6	Txakurrentzako aisiarako eremuak. 12.000 euro	2660
7	Bizikleta publiko elektrikoaren alokairua eta aparkaleku segurua, bizikleta eta NMP pribatuak kargatzeko guneekin. 400.000 euro	2590
8	Igogailua Andrés Isasi Musika Eskolan. 150.000 euro	2520

Datuak ustiatu ondoren, ikus daiteke zazpi lehenengo proiektuak aurrera jarraituko dutela aurrekontuetan:

EMAITZEN ORDENA	PROIEKTUAK	GASTU KANTITATEA
1	Adinekoen nahi gabeko bakardadearen kontrato baliabideen katalogoa.	22.000€
2	Bidegorri sarea zabaltzea.	300.000€
3	Tokiko merkataritzan kontsumoa sentsibilizatzeko, laguntzeko eta sustatzeko kanpaina.	60.000€
4	Zaharberritzeak Villamonteko Kultur Aretoan.	155.200€
5	Santa Anako haur parkea berritza.	48.000€
6	Txakurrentzako aisiarako eremuak.	12.000€
7	Bizikleta publiko elektrikoaren alokairua eta aparkaleku segurua, bizikleta eta NMP pribatuak kargatzeko guneekin.	400.000€
GUZTIRA		997.200,00 €